

I.-Idea:

Gure enpresan, Shiro S.A, sortu nahi dugun zerbitzua Shiro Sending Eco-Friendly da. Zerbitzu hau paketeak eta janaria bezeroen etxeetara dron baten bidez eramatean datza. Gure zerbitzua bi ataletan bereiz ditzakegu, bat paketeen bidalketa eta bestea janariena.

Paketeak eskatzeko, lehenengo gauzak saltzen dituzten enpresek gure zerbitzua kontratatu behar dute. Adibidez, pertsona bat futbolezko zapatilak erosi nahi baditu, futbol zapatilak saltzen dituen enpresak, gure zerbitzua kontratatu behar du bere web orrian gure bidalketa aukeratu ahal izateko. Gauza bera gertatzen da beste zerbitzuaren atalekin, non jatetxeek gure zerbitzua kontratatu behar dute.



Gure drona jarraituko duen prozesua hurrengoa izango da. Lehenengo gure biltegietatik bezeroen eskaera jasotzen dugunean aplikazioaren bitartez edo guri kontratatutako enpresei deitzean eta eskaera egiten, baina azken kasu honetan eskaera egiterakoan gure Eco-Friendly zerbitzua nahi dutela esan behar dute. Guk eskaera jasotzerakoan dron bat aterako da gure biltegitik eta jatetxera edo beste enpresaren biltegi batera joango da. Behar den tokira ailegatu ostean, drona pakete batekin edo janariz beteta izango da eta bezeroen etxeko portalera joango da. Momentu guztian bezeroak eskariaren jarraipena egiteko aukera izango du gure aplikazioa erabilita.



Shiro Sending Eco-Friendly duen abantaila nagusia da beste enpresekin konparatuz gero, gutxiago kutsatzen duela, motor ibilgailua erabiltzen ez dugulako. Baita ere dronak bizkorragoak direla, motorrak azkarrak izan arren trafikoarekin batzuetan arazoak izan daitezkeelako eta banaketa denboran egitea zaila izan daitekeelako, baina dronak ez dute arazo hori zeruan ez dutelako trafikorik.